

Sakonean

Berriztagarriak bai, baina

Arabaren eraiki edo proposatu diren proiektu energetikoen hautespenak erabakitzeko. Energia behar da, eta berriztagarrien bidez sortua gainera, baina zein da modu egokiena? Zalantza ugari daude trantsizio energetikoen ereduaren inguruan.

Testua: **Jon Hidalgo.**

Nola jarri beharko lirateke berriztagarriak Araban? Beharrezkoa da ingurumenari kalte egitea energia berdea lortzeko? Araba sakrifizio eremua izango da EAE edo Espainiarako? Badago estrategia energetikorik? Aldatu dezakegu gure energia kontsumo eta ekoizpen ereduak? Zeren ordainetan?

Galdera potoloak dira, eta ez daukate erantzun errazik, baina eztabaida publikoan indarrez sartu dira azken urteetan, proiektu energetiko berriztagarriak hazten doazen heinean. Euskal Herriko eta Arabako mugimendu ekologistak urteak eman ditu berriztagarrien alde borrokan, energia fosilen erabilera salatuz eta trantsizio energetikoen beharra aipatuz. Hala ere, berriztagarriak heldu direnean, borrokan jarraitzeko beharra sentitu dute askok. Alde batetik, salatu izan dute "makroproiektu energetikoen" ingurumen inpaktu oso kaltegarriak izango dituztela eta, bestetik, agintariei leporatu diete trantsizio energetikorako plan estrategiko garbirik gabe aritzea. Trantsizioa "teilatutik eraikitzen hastea", Araba Bizirik hitzetan.

Kritika artean, baina aurrera doaz energia enpresak proiektu berriztagarriak eraikitzen eta gehiago proposatzen. Hala agintzen dute Lurralde Plan Sektorialek, Europako eta nazioarteko

hitzarmenek eta mundu mailako kontsentsu zientifikoak. Hamaika proiektu daude Arabarako, gauzatzeko edo tramitazio maila ezberdinetan. Haize errota ugari eraiki edo proposatu dira, Arabako kuadrilla bakoitzerako dago proiektu eoliko bat gutxienez. Eguzki plakak jartzeko asmoak ari dira agertzen orain, badaude proiektuak Aiaraldea, Añana, Lautada, Mendialdea eta Gasteizko kuadrilletarako. Azkenekoak Solaria enpresaren Zierbena Solar 2, 3 eta 4 izan dira, Erriberabeitia bata, Zigoitia bestea eta azkena Gasteiz eta Iruña Oka artean. Hiru hauek batuta, 310.000 plaka fotovoltaikorekin, ia 400 hektarea lur hartuko dituzte. Sortutako energia ebakutzeko goi tentsioko linea bat ere eraiki asmo du Solariak. Linea honek Zuian elkartuko ditu hiru sorburuak, eta Araba zeharkatuko du hegoaldeko iparraldera. 100 kilometrotik gora luze, Bizkaiko Zierbena herriraino heldu eta han txertatuko da energia Espainiako Sare Elektrikora, Petronorren plantatik kilometro gutxira dagoen azpiestazio elektrikoan.

Azken proiektu hau, eta beste asko, tramitazio fasean daude oraindik. Alegazioak aurkeztuko dituzte hainbat udal eta eragilek, eta ikusteko dago ea lortzen duten behin betiko baimena. Arabako Foru Aldundiko teknikariek ere esana dute "gehiegizkoa" dela proiektu energetikoen zabalpena lurraldean, eta zonalde batzuk kanpo uzteko eskatu dute, ingurumenean kalte handiegia jasango dutela argudiatuta. Hala ere, espero daiteke beste hainbat proiektu agertzea datozen hilabete eta urteetan. Solaria enpresak bere inbertitzaileei esan die halako beste 27 proiektu jarri nahi dituela Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan eta, zenbait adituren arabera, aukera asko daude gehienak Araban kokatu nahi izateko.

Makroproiektuen aurrean, lurraldearen defentsa

Zenbateko kaltea onar daiteke ingurumenean, berriztagarriak jartzeko? Zabalik dago eztabaida. UAGA sindikatuaren iritziz, halako proiektuek lehenetsi beharko lituzkete nekazaritza eta abeltzaintzarako erabiltzen ez diren lekuak, gutxienezko inpaktua sortuko dutenak. Mozioa aurkeztu berri du UAGAK, Araba Bizirik eta Bionekazaritza elkartearekin batera, jarduera estrategiko gisa hartu daitezkeen nekazaritza eta abeltzaintza Arabako Batzar Nagusietan. Onartuko balitz ere ez dago argi eragin juridikorik izango lukeenik, baina, UAGAKo ordezkarien hitzetan, borondate politikoa erakusteko aukera izango dute diputatuek, "lurraldea defendatzeko nahia".

Hiru proiektu nagusien artean, 310.000 plaka fotovoltaiko jartzea aurreikusi dute Arabako lurretan. PHOTO: OK





Erriberabetiako udalerrria da, adibidez, "sakrifikatutako eremu" horietako bat, bizilagunek salatu dutenez. Udalerrian egindakoa "astakeria" bat dela adierazi dute Erriberabetia Bizirik taldetik. AHTa igarotzen da handik, egun EAEn dagoen parke fotovoltaiko handiena du jadanik eraikita eta Solaria enpresak 133 hektareako parke berri bat eraiki nahi du bertan, bere azpiestazio elektriko eta ebakuazio linea eta guzti.

Azken hilabeteetan hainbat mobilizazio izan dira Gasteizen energia berriztagarri "jasangarriren" alde. PHOT. OK


Prensaurreko batean udalerrriaren mapa erakutsi zuen udal taldeko kide batek, eginda edo proposatuta dauden proiektu guztiekin, eta marraz josita ikusi zitekeen zonalde osoa, "herrien arteko loturak moztuta, zubi, tunel, dorre eta oztopoz bete".

Zigoitian, Lantaronen, Zuian eta beste hainbat herritan bizilagunak antolatzen ari dira proiektuen aurka egiteko, alegazioak jarri eta bizilagunei informazioa emanez, besteak beste. Arratzua-Ubarrundian, adibidez, kontzeju gehienek ezekoa eman zioten Solariak haien lurretan proposatutako proiektu fotovoltaikoari. Antzekoa gertatu da Zuian, udalaren osoko bilkurak aho batez onartu berri du Solariaren proiektuaren aurka agertzea, eta alegazioak aurkeztuko ditu talde juridikoak. Ikusteko dago herrietako erresistentziak zer fruitu ematen dituen. Izan ere, EAJ, EH Bildu eta PSEk onartutako Trantsizio Energetikorako Legeak, lehenago "Tapia legeak" egin bezala, aurreikusten du administrazioko maila altuagoetan hartuko direla proiektu energetikoen inguruko erabakiak, herrien erabakimenaren gainetik.

Badago estrategiarik?

Lurraldea sakrifikatu behar den ala ez, edo zenbateraino kaltetu, ez da eztabaida bakarra. Askok kritikatu izan dute nor ari den proiektuak proposatzen, erabakitzen eta dirua irabazten.

Euskal Herri mailako eragile ekologista ugari salatu izan dute estrategia gabe egiten ari direla trantsizioa, eta gobernuari leporatu diote enpresen interesen arabera aritzea. "Enpresek proiektuak aurkezten dituzte, etekin ekonomiko gehien izateko asmotan, eta gobernuak argi berdea besterik ez die ematen, ez dago plangintzarik", dio Araba Bizirik. Horren aurrean estrategia argi bat garatzeko beharra aldarrikatu dute ekologistek, lurraldearen beharrak lehenetsiko dituen. Alderdi politiko batzuek Energiaren Euskal Erakundea indartzeko asmoa azaldu izan badute ere, gaur gaurkoz badirudi ezinbestekoa izango dela enpresa pribatuaren, edo publiko norvegiarren, parte hartzea. Baina zalantzan gelditzen da nork zuzendutako plana izango den, zer interesen arabera sortuko diren proiektuak eta zeren truke egingo dugun hain beharrezkoa den trantsizio energetikoa. Ez dauka erantzun errazik. ■



Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Zurekin bat